

Arabako Foru Aldundiak elkarrizketarako deia egin du eta zibersegurtasun industrialaren garrantzia azpimarratu du Aiara Industrial Labek antolatutako Gosari Teknologikoan

Ramiro Gonzalezek berretsi egin du erakundeak industria berritzaileagoa, digitalagoa, lehiakorragoa eta deskarbonizatuagoa izateko duen konpromisoa, lurraldearen modernizazio ekonomikoari laguntzeko tresnak bultzatuz

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 23a. Arabako diputatu nagusiak Aiara Industrial Labek antolatutako bigarren Gosari Teknologikoan parte hartu du gaur goizean, Amurrión. Bertan, elkarrizketa sozialerako dei irmoa egin du, eskualdeak bizi duen egoera industrialari aurre egiteko ezinbesteko bide gisa, eta digitalizazioak eta zibersegurtasunak enpresen lehiakortasunaren etorkizunean duten zeregin estrategikoa nabarmendu du.

Bere hitzaldian, Aiaraldeko hainbat enpresa garrantzitsuri eragiten ari zaizkien krisien segida aitortzen hasi da, enplegu galera handia eta inbertsio berriak erakartzeko zailtasunak eragin dituztenak. Gogorarazi du eskualdea industria-erreferente izan dela historikoki, lehiatzeko dituen abantailei esker — kokapena, industria-lurzorua eta talentua —, eta beti ezaugarri izan duen industria-bokazioaren espiritu hori berreskuratzeko beharra defendatu du.

Azpimarratu duenez, herrialde eta lurraldeak inbertsioak erakartzeko lehiatzen ari dira gaur egun, eta egonkortasuna eta gatazkarik eza bezalako faktoreak erabakigarriak eta lan-eskubideen defentsarekin guztiz bateragarriak dira. Horregatik, elkarrizketa erdigunean kokatzea eskatu du, gatazkek konpontzeko metodorik onena delako eta eskualdea bultzatzeko, inbertsioak berriro erakartzeko eta industria indartzeko funtsezko baldintza delako.

Diputatu nagusiak digitalizazioa eta zibersegurtasuna funtsezko elementutzat jo ditu egungo eta etorkizuneko industrian. Industria gero eta konektatuagoa, automatizatuagoa eta zorrotzagoa izango dela nabarmendu du, eta horrek aukerak ematen dituela prozesuak hobetzeko, eraginkortasuna handitzeko eta oro har lehiatzeko gaitasuna indartzeko. Hala ere, aurrerapen teknologiko horrek dakartzan arriskuez ohartarazi du, batez ere adimen artifizialak eraso sofistikatuagoak eta mehatxu sinesgarriagoak ahalbidetzen dituenean.

Testuinguru horretan, zibersegurtasuna ez dela berrikuntzaren galga gisa ulertu behar defendatu du, baizik eta berrikuntza sendo eta iraunkorra ahalbidetzen duen baldintza gisa. Adierazi duenez, teknologia irizpidez txertatzeak prozesuak, sistemak eta prestakuntza indartzea eskatzen du, enpresei erresilientzia handiagoa emateko. Zibersegurtasuna "lehiakortasun industrialean egindako inbertsioa" dela azpimarratu du, batez ere enpresa txiki eta ertainentzat, lurraldeko ehun industrialaren gehiengoa

osatzen dutelako eta laguntza, erreferentzia erabilgarriak eta tamainaren arabera irtenbideak behar dituztelako.

Diputatu nagusiak adierazi du erakundeen, enpresen, zentro teknologikoen eta berrikuntzako eragileen arteko lankidetzak erabakigarria dela egungo erronkei aurre egiteko, eta berretsi du Aiaraldeak iragana, oraina eta etorkizun industrialak dituela. Etorkizun hori — defendatu du — ez da konformismotik edo derrotismotik eraikiko, anbiziotik, lankidetzatik eta egokitzeko gaitasunetik baizik.

Testuinguru horretan, Arabako Foru Aldundiak industria berritzaileagoa, digitalagoa, lehiakorragoa, deskarbonizatuagoa eta seguruagoa izateko duen konpromisoa berretsi du, lurraldearen modernizazio ekonomikoari laguntzeko tresnak bultzatuz. Hala ere, azpimarratu du laguntza publiko bakar batek ere ez duela ordezkatzeko enpresa bakoitzak bere estrategian eta barne-kulturan zibersegurtasuna eta eraldaketa digitala txertatzeko duen borondatea.

Amaitzeko, diputatu nagusiak nabarmendu du Gosari Teknologikoa bezalako topaketek teoritik ekintzara eta kezkatik prestakuntzara igarotzen laguntzen dutela, ezagutza aditua enpresetara hurbilduz eta edozein eraldaketa-prozesu eskatzen duen lankidetzak indartuz.